

Ingurumen Istorioen Kartografia Kolektiboa

Betolaza, Ingurabidea eta Uretamendi auzoetako ingurumen istorioen kartografia kolektiboa elkarrekin sortzeko ideia IntegrateNbS ikerketa prozesuarekin jaio zen. Hasiera batean, ikerketa lanaren proposamena egin genuenok, gurekin elkarlanean arituko ziren eragileak ulertzeko beharra genuen, auzoa bera eta auzokideentzako garrantzitsuak ziren lekuak ezagutzeko premia genuen, eta OpenGela hiri-berroneratze programak bere gain hartutako auzo bakoitzeko guneak aztertu nahi genituen. Labur esanda, inguruari eta bertan gertatzen zenari buruz ikasi nahi genuen.

Denborarekin ulertu genuen auzoan bizitako istorio guztiak geografia zehatz bati lotuta zeudela eta antolakuntzaren, tokiko garapenaren eta auzo bakoitzaren eta bizilagunen eraldaketaren inguruan mintzo zitzaizkigula. Ulertu genuen nola txabolero harro horiek etxebizitza familiabakarren jabe bihurtu ziren borroka sozialari eta komunitate izaera sendoari esker. Era berean, ulertu genuen bizipen horien zati bat lausoa zela auzokideen kontakizunetan, ez zutela argi erakusten alde hori, baina guk ikus genezakeen, kalean ikusten genuen. Hiru auzoen eraketaren inguruko esperientziak dira, Arraiz eta Pagasarri mendiei loturiko esperientziak, lur azpiko iturriek eta natur-ingurunearen kudeaketa kolektiboari estu-estu lotutako esperientziak dira. Gai horien inguruan galdetzea erabaki genuen eta horrela jaio ziren jakin-min eta hausnarketa berriak. Gogoeta hauetan banaka zein kolektiboki sakontzeko espazioak sortzeko proposatu genuen, inguruarekin dugun loturen gainean hausnartu eta eztabaidatzeko. Bizilagun batek paperean bolalumaz marraztutako eskema batetik abiatu ginen, gero koloretako zelo zatiak itsatsi genituen kartulina batean auzoko gune esanguratsuak identifikatzeko, eta, azkenerako, nabarduraz eta hitzez jositako kartografia hau genuen osatuta guztion artean.

Prozesu honetan zehar banakako zein taldeko topaketak egin ditugu, une asko partekatu ditugu, erabakiak hartu ditugu eta aldaketak izan dira, eta horrela joan da eratzen orain eskuartean duzun kartografia hau. Kartografia bi ataletan dago banatuta. Alde batetik, haize-arrosa dugu. Bertan irudikatzen dira balioen mapa, iraganeko ingurumen istorioak eta etorkizuneko desirak. Beste aldetik, ikerketa prozesuan zehar idatzitako eta berriidatutako ingurumen istorioekin osatutako liburua dago, denboran zehar auzo horietako eguneroko bizitza nolakoa izan den erakusten duten irudiz lagundutakoa.

Mapak lurraldearen eta auzokideek urte hauetan guztietan bertan biziz eraike dutenaren arteko harremana jasotzen du. Auzoaren matrizea errespetatu dugu, hau da, etxebizitzaren eta zenbakitzearen banakako mugak albo batera utzi ditugu eta lehenetasuna eman diogu kaleak mendi-hegaletan mailakatutako modua ulertzeari. Naturarekin lotura duten toki komunak toponimia baino ez dugu mantendu. Markatutako eremuek espazioak istorio bakoitzarekin duen harremana marrazten dute, eta ibilbide zein gune komunak errespetatzen saiatu gara: bizirik dagoen paisaiaren historiari kapak gehitzen joan gara. Ilustrazioak egiteko auzoko artxiboko irudiak baliatu ditugu. Argazkiok ez dira aipatzen den une bakoitzean ateratakoak, baina auzoaren irudizko historia osatzen dute, eta haren errealitatea ulertzen eta barneratzen laguntzen digute.

IntegrateNbS Proiektua

Kartografia hau 'Naturan oinarritutako irtenbideen potentzial eraldatzailea hobetzen - IntegrateNbS' (2024-2026) ikerketa-proiektuaren parte da, Zientzia eta Berrikuntza Ministerioak 'Hiri trantsizioak gidatzen' Europako lankidetzaren bidez finantzatutakoa.

Proiektuak hiri-inguruneetan 'naturan oinarritutako irtenbideak' ezartzeko ikuspegi integratzailea bultzatzen du. Horretarako, gizarte- eta ingurumen-arazo zehatzak jorratzen ditugu eragile eta instituzio publiko desberdinekin, betiere klima-aldaketara egokitzearren eta justizia sozialaren ikuspegitik. Funtsezko dimentsioak dira bidezkoagoak eta erresilienteagoak izango diren hiriak ulertu, elkarrekin sortu, egokitu eta diseinatu ahal izateko.

Proiektuaren helburu nagusia 'Laborategi Integratzaileak' deritzon metodologia berria garatzea da. Gizarte berrikuntzako metodologia honek hainbat eragileren parte-hartzea sustatzen du, besteak beste, herritarrena, tokiko elkarteena, hiri-eremuen birnaturalizazio prozesuetan inplikaturako agenteena, erakunde publikoena eta ikerlariena, eta Europako bost hiritan garatzen ari da: Bilbon (Espainia), Minsken (Polonia), Sogndalen (Norvegia), Gotlanden eta Lunden (Suedia). Gure esparru teorikoa jasangarritasunerantz zuzendutako eraldaketetan oinarritzen da, eta fokua jartzen du bai ekintza indibidual zein kolektiboak gidatzen dituzten balioak ulertzeko, bai paradigma berrien sustapenean, gobernantza inklusiborako modu berriak bultzatzean edo klima-aldaketara egokitzeko esku-hartze praktikoetan, hala nola testuinguru bakoitzari egokitutako eta naturan oinarritutako soluziobideetan.

Bilboko Udalak hondatutako guneen hiri-berroneratze programa bat abiatu du Eusko Jaurlaritzarekin batera. Horretarako, 'OpenGela' izeneko bulegoak ezarri ditu hainbat auzotan, tartean Uretamendin. Bulego horretan laguntza tekniko eta juridikoa ematen diete etxebizitzak eta eraikinetako gune komunak birgaitu nahi dituzten auzokideen erkidegoei. Haien erronkak ulertu eta abian dauden hiri-berroneratze prozesu hauek laguntzeko, IntegrateNbS proiektuan erabaki genuen bulego horiek dauden hiru auzoetan lan egitea, hau da, Betolazan, Ingurabidean eta Uretamendin.

Hiru auzoen historia bat bera da, Bilboko periferian daude kokatuta eta Eusko Jaurlaritzak EAEko per capita errentaren batez-bestearen azpitik sailkatzen ditu. Jatorrizko bizilagun gehienak Espainiako Estatuko landa eremuetatik iritsitako migratzaileak dira, 1950eko hamarkadan Bilbora etorri zirenak industrian lan egiteko. Etxebizitza kooperatibak antolatu zituzten eta beren etxeak zein inguruko azpiegitura publikoak eraiki zituzten. Birkokatze prozesu eutsi diete, garraio publikoa lortu dute urteetako aldarrikape nei esker, eta baratze-sistema propioa mantentzen dute, hirian geratzen den bakarrenetakoa. Auzoaren osaera sozialari dagokionez, egun nazioarteko zein estatu mailako migratzaileak bizi dira elkarrekin, jatorrizko auzokideekin eta beren ondorengoekin batera. Eremua udalerriko natura eta aisialdi gunez inguratuta dago, Arraiz mendia kasu. Auzo elkarteek gizarte-kohesioa eta bizikidetzaz sustatzeko beharra nabarmentzen dute, baita auzokideen bizi baldintzak hobetzeko ere. Azpiegitura eta bizigarritasun arazoak ere aipatzen dituzte, tartean irisgarritasunarekin eta eremu komun eta pribatuen mantentze-lanekin lotutakoak.

Ikerketa lan sozial eta parte-hartzailearen bidez pertsonen arteko eta ingurune naturalarekin dituzten loturak zein diren eta denborarekin nola aldatu diren ulertzen saiatu gara. Hala ere, prozesu hauek auzoarekin batera nola aberastu daitezkeen hausnartu dugu, eta inguruko kohesio soziala lagun dezaketean aztertu dugu. Era berean, erakunde publikoek eta bereziki Bilboko Udalak naturan oinarritutako irtenbide inklusibo eta bidezkoak sortzearen inguruko informazio gehiago izan dezaten bilatu dugu.



Erabilera komertziala eta eratorritako obrak onartzen ditu, baina horiek lizentzia berearekin partekatu behar dira.

Lizentzia: CC BY-SA



Proiektuak MICIU/AEI/10.13039/501100011033 erakundearen eta Europar Batasunaren NextGenerationEU/PRTR programaren finantzaketarekin gauzatu da eta MCIN/AEI/10.13039/501100011033 erakundeak finantzatutako CEX2021-001201-M erreferentziako laguntzaren babesu du.



Argazkiak: Uretamendiko auzo-artxiboa

Diseinua: Julia Alvarez Tola

Kertzaille-taldea: Nicolas Gutierrez Rojas - Violeta Cabello Villarejo - Violeta Furlan

Josba Uretamendi Gizarke Etxea - Ane Hervas Goiricelaya (Opendelak)

- Usoa Jimenez Campo - Yaiza Secada

- Pablo Herreros Cantis - Prudencia Rodriguez Madrid - Silvia Aparicio Irueta


Mari Carmen Sorde - Maria del Pilar Santero Merino - Nuria Crespo - Olgali Hernandez


Guillermo Kincan Ospina - Inma Vega Sorde - Jose Antonio Lopez - Laura Reyes Hernandez


Agustin Marcos - Elena Maranon Gonzalez - Elisa de los Reyes Garcia Lopez - Felicitas Carretero Vegazo




IRAGANEKO ISTORIOAK


 Auzokideen elkarlana mendian behin eta berriz pizten ziren suteekin amaitzeko


 Ura eta saneamendua lortzeko lan kolektiboak eta auzolanak

 Auzokideen antolakuntza iraganeko uholdeei aurre egiteko

 Mendi garbiketarako urbanizazio prozesuan


 Gaur egungo ortuak eta galdu direnak

 Kaleko jolasak eta jai kolektiboak haurtzaroan, belaunaldiz belaunaldi

 Auzoa eta mendia

BALIOAK

Haize-arrosa honetan jasotako hitzek, IntegrateNbS proiektuaren baitan egindako lanegietan hautatutako balioak irudikatzen dituzte. Uretamendi, Betolaza eta Ingurubidea komunitatearentzako eta auzok ingurunearekin duten harremanarentzako garrantzitsua denaz mintzo zaizkigu.



ETORKIZUNEN BELAUNALDIEN ZAKO ISTORIOAK

Haurrak eskolako jolastokian ibiltzen ziren olgetan, barre zantzo eta algarak entzuten ziren

Auzokideek natura, laborantza eta fruta-arbolak zaintzen ikasten dute

Mendi taldeari esker, naturarekin lotutako elkarbizitza jarduerak egiten dira

Mendi-irteerak egiteko elkartzea, haurra nintzen garaian bezala: umeei naturaren edertasunaz gozatzea eta haren garrantzia ulertzea

Gure gune berdeak garbi mantendu behar ditugu, haur, gazte zein helduk bertan gozatzeko aukera izan dezagun

Auzoa ikaragarri hobetu da espazio komunitarioak aktibatu eta birnaturalizatu zituztenetik. Gure atzerriko auzokideak ezagutu ditugu, igandeetan bazkariak antolatzen ditugu, hainbat baratze eta fruta-arbola ditugu auzoan bertan




Zuhaizti bat sortuko dugu belaunaldi desberdinetako auzokideen artean

Gure antzekotasun eta desberdintasunez jabetu ginen eta gure ingurunea eta gure burua zaintzen ikasi genuen

Txakurren jabeek gainerako auzokideak errespetatu al dituzte eta haien animalien gorozkiak jaso!

Auzoko gazteak auzoaz arduratzen dira eta naturari buruzko olerki lehiaketa antolatzen dute



-  Uretamendi
-  Betolaza
-  Ingurubidea